

**KONTSULTA PUBLIKOA, TURISMO AKTIBOAREN DEKRETUA
PRESTATZEKO PROZEDURA HASI AURRETIK**

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Euskal Autonomia Erkidegoan turismo aktiboko jardueran aritzeko enpresei aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen duen dekretu-proiektua egiten hasteko asmoa du, Turismoaren 13/2016 Legean aurreikusitakoa garatuz.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan 1. apartatuan eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, xedapen orokor baten izapidetzea sustatzen duen organoak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi aurretik, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia.

Horregatik, argitalpen honen bidez, eta bere garaian egingo den entzunaldi-izapidea alde batera utzi gabe, ekimen honen berri ematen zaie herritarrei eta, bereziki, hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiei.

- Onestearen premia eta egokitasuna.

Turismoaren 13/2016 Legearen (TL) 72. artikulua ezartzen du turismo-intereseko jardueratzat hartzen direla Euskadiko turismoa dinamizatzen laguntzen duten eta turistek mugimendua eta egonaldiak laguntzen dituzten jarduerak. Era berean, horien artean sartzen ditu natura kirol-jarduerak –hala nola turismo aktiboa– eskaintzen dituztenak.

Gainerako turismo-jarduerari dagokienez bezala, Turismoaren 13/2016 Legeak 18. artikuluan adierazten du jardueran aritzea librea dela aurretiaz legezko baldintzak betetzen badira, besteak beste, jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea eta Euskadiko turismo-enpresen eta -jardueren Erregistroan inskribatzea (Turismoaren 13/2016 Legearen 20. art.).

Turismoaren 13/2016 Legearen 74. artikulua, interes turistikoko jarduerak egiten dituzten enpresak antolatzeari buruzkoak, turismo-agintaritzari agintzen dio araudi espezifiko bat bultzatu, sustatu eta erraz dezan, hala badagokio, Jaurlaritzako beste sail batzuekin batera, VI. tituluaren jasotako establezimendu edo sektoreetarako (hala nola turismo aktiborako edo beste batzuetarako), baldin eta araudi hori eskatzen badute eta Administrazioari beste arlo batzuen aldetik arau-estaldurarik ez badaukate.

Horregatik, lege-arauak berak erregelamendu bidezko garapena eskatzen du, jarduera horren araubide juridikoa osatuko duena, eta eska daitezkeen funtzionamendu-baldintzak eta betekizunak adieraziz, Legearen helburuak betetzeko; izan ere, Legearen helburua, puntu horretan –azalpen-zatian adierazten den bezala–, honetan gauzaten da: erabiltzaileen eskubideen babes egokia bermatzeko; erabiltzaileen eskura jartzean haien segurtasun publikoa eta finantzarioa bermatuko duen eskaintza; eta Euskadi bisitatzen duten pertsonen hautemandako turismo-jardueraren kalitateari eustean.

Ildo horretan, turismo aktiboko enpresei eskatzen zaizkien baldintzen helburua izango da ekipoen eta materialen, teknikarien eta horien moten betekizunak ziurtatzea, lehen sorospenteko titulua izateko betebeharra bermatzea, eta legeriak eskatzen duen titulazioa izatea, turismo aktiboko jardueretan bezeroak bideratzeko edo laguntzeko.

Era berean, segurtasuneko eta istripuen prebentzioko baldintzak, bete beharreko segurtasun-neurriak eta Segurtasun eta Larrialdi Plan bat edukitzeko betebeharra jasotzen dira. Zerbitzua ematea hitzartzen denean bezeroari eman beharreko informazioaren edukia eta nahitaezko Erantzukizun Zibileko aseguru zehatz-mehatz jasotzen dira.

Aurreikusitako erregelamendu-garapenak xedea ere arautzen du eta aplikazio-eremua mugatzen du. Era berean, honako hauek arautzen dira, besteak beste: aplikazio-eremutik kanpo geratzea, ingurumenaren eta kultura-ondarearen babesa eta administrazioaren lankidetzak, jarduerak gauzatzeko, aldatzeko eta eteteko baldintzak eta prozedura, erabiltzaileen betebeharrak, eta enpresa horiek egiten dituzten bidaiarien garraio osagarriak edo jarduera horri aplikatzekoa zaion turismo-diziplina.

Azaldutakoa kontuan hartuta, zalantzarik gabe dekretu hau beharrezkoa eta egokia da.

- Arauen helburuak.

- Arau-esparru espezifikoa ematea turismo aktiboko enpresei, eta, horrela, segurtasun juridikoa ematea interes turistikoko jardueraren eremu horri, oraingoz ez baitu erregulazio espezifikorik. Horretarako, arau-esparru egonkor bat egingo da, argia eta gainerako ordenamenduarekin koherentea, arau-esparru hori ezagutzea ahalbidetuko duena, eragindako eragileek erabakiak har ditzaten.
- Jarduteko gutxieneko baldintza batzuk ezartzea, hartzaileei kalitate- eta segurtasun-maila egokia bermatzeko.
- Turismo-erabiltzaileen babesa ahalbidetzea, prezioen, erreserben eta ezerezteen araubide baten bidez, eskaintako zerbitzua eskasa bada edo ez badator bat eskaintakoarekin, beren eskubideak baliatzen lagun dezaten.

- Horrelako jarduerari aplikatu beharreko araudi osoa bete dadin sustatzea, batez ere ingurumenari eta ondarea babesteari buruzko preskripzioei eta jardueraren jasangarritasun sozial eta ekonomikoari dagokienez.
- Euskal turismo aktiboko enpresen jarduera erraztea beste autonomia-erkidego batzuetan, jarduera garatzeko alde z aurreko erantzukizunpeko adierazpena nahitaezkoa den autonomia-erkidegoetan, eta beste autonomia-erkidego batzuetan kokatutako turismo aktiboko enpresek Euskadin jarduera aldi baterako gauzatzea erraztea, eta ingurumena errespetatzen duten horrelako ekimenak garatzeko esparru mesedegarri bat sustatzea, ekimen horiek gauzatzen diren eremuen garapen ekonomiko eta jasangarriari laguntzen dioten heinean.
- Online turismo-merkatuaren garapen handia kontuan hartuta, eta sektorea bultzatzen eta dinamizatzen jarraitzeko, turismo aktiboko enpresen titularrek dekretu honetan jasotzen diren adierazpenak eta komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez soilik egiteko betebeharra dute; izan ere, haien jardueraren izaerak berekin dakar, nahitaez, komunikazio mota hori modu eskusiboan mantentzea ahalbidetzen duten gaitasun teknikoak edo dedikazio profesionalekoak izatea.

Helburu horiek lortzeko, eta proportzionaltasun- eta eraginkortasun-printzipioekin bat etorritik, behar-beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira, ahalik eta murrizketarik txikiena dakarren aukera baloratuz, beharrezkoak ez diren administrazio-kargak saihestuz eta baliabide publikoen aplikazioa arrazionalizatuz.

- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Azken urteotan, turismo-eskariaren zati bat aktiboagoa izaten ari da; pertsonak esperientziaren parte izan nahi du, eta aisialdiarekin eta naturarekiko harremanarekin lotutako turismo-eskaintza azkar garatzen ari da.

Fenomeno horrek, turismoaren antolamenduaren ikuspegitik, zenbait arazo sortzen ditu, eta horiek arautzea eskatzen eta justifikatzen du:

- Turismo aktiboko jardueren eskaintza baldintza egokietan egoteaz gain, hartzaileei gutxieneko kalitate- eta segurtasun-bermerik ematen ez dieten jarduerak merkaturatzen dituzten beste eskaintza batzuk ere sor daitezke batzuetan. Jarduera horiek ez dute inolako kontrolik, ez baitute erregulazio espezifikorik.
- Ildo beretik, ez dago jarduera horien erabiltzaileen eskubideak babesteko mekanismorik, merkataritza-transakzioetan segurtasun-maila egokia bermatzen duenik eta jarduera kontrolatzea ahalbidetzen duenik, kexak edo erreklamazioak aurkeztuz, jarduera turistikoaren araudi propio baten bidez zehatu daitezkeenak.

- Azkenik, jarduera hauen titular batzuek beren legezko betebeharrak zorrotz bete gabe utz ditzakete, ezkutuko ekonomiako kasuak edo erabiltzaileen babesgabetasunaren kasuak sortuz eta, gainerako operadoreekin alderatuta, abantaila-egoeran dagoen lehia eskainiz.

Egoera horiek Turismo Administrazioaren esku-hartze arauemaile bat eskatzen dute, interesak haztatuta, turismo aktiboaren jarduera antolatuko duena.

- Bestelako irtenbide erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak kontuan hartuta, ezinbestekoa da arau-izaera duen neurri espezifiko bat prestatzea, eta ezin da bestelako irtenbiderik aurreikusi.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 1a.